



ehbildu

2024ko Abendua

Norabide bat Durangori

Un camino para el futuro



El gobierno municipal elige de nuevo pactar los presupuestos con el PP



Ekaitz Andueza eta Nagore Lozano kideei elkarrizketa



Etxebizitza eskaria gorantz doa eta eskaintza txikia eta garestia da

Norabide bat Durangori

Una dinámica para pensar el futuro

Azaroaren 22an, 200 pertsona elkartu ginen San Agustinen Durangorentzako norabide bat marrazteko helburuarekin. Zelako Durango eraiki nahi dugu? Zelan imaginatzen dugu etorkizuneko Durango? Zein proiektu behar du Durangok?

Azken 40 urtetan gure herria hazi egin da, baina ez da inoiz egon epe luzeko proiekturik mahai gainean. Inertziaz kudeatu da eta, pixkanaka-pixkanaka, eremu estrategikoetan eragiteko gaitasuna murrizten joan da. Izan ere, eskumenak galdu dira, lurrak pribatizatu eta azpikontratazioa hobetsi da.

Bada garaia norabidea zuzentzeko, burua altxatu eta etorkizunera begiratzeko. Gainera, datorzkigun olatu handiak zelan nabigatu pentsatu behar dugu. Aro aldaketa batean murgilduta gaude, eta suertatzen ari diren erronka berriei aurre egiteko proiektu politiko argi bat behar dugu. Printzipio ezkertiar, berdinzale eta demokratikoetan oinarrituta, gure Herri Eredua marraztu dugu. Etorkizuneko Durango bizigarria, bizia eta denontzat.

El 22 de noviembre, alrededor de 200 personas nos reunimos en San Agustín con el objetivo de trazar un camino para Durango. ¿Qué tipo de Durango queremos construir? ¿Cómo imaginamos nuestro Durango del futuro? ¿Cuál es nuestro proyecto para Durango?

En los últimos 40 años, nuestro pueblo ha crecido, pero nunca ha existido un proyecto a largo plazo. Se ha gestionado por inercia y, poco a poco, la capacidad de influir en áreas estratégicas se ha ido reduciendo. De hecho, se han perdido competencias, se han privatizado terrenos y se ha priorizado la subcontratación en áreas estratégicas.

Es hora de corregir el rumbo, de levantar la cabeza y mirar hacia el futuro. Tenemos que pensar cómo navegaremos las grandes olas que se acercan desde el horizonte. Estamos inmersos en un cambio de era, y, por lo tanto, necesitamos un proyecto político claro para afrontar los nuevos desafíos. Basándonos en principios de izquierda, igualdad y democracia, hemos trazado nuestro modelo de pueblo.





*Kulturgintza,
elkartegintza,
auzoak eta
komertzio txikia
dira gure herria
bizitzaz betetzen
dutenak. Udaletik
bultzatu behar dira*



Durango bizigarria

Durango Bizigarria aldarrikatzea inoiz baino garrantzitsuagoa da. Hala izan dadin pertsonak erdigunean jartzen dituen hirigintza garatu behar dugu, osasuna eta jasangarritasuna gure politiken lehen lerroan kokatuz.

Alde batetik, ozen aldarrikatu behar dugu **etxebizitza eskubide bat dela**. Hori bermatzeko alokairuzko etxebizitza publikoen parkea handitu behar da.

Bestalde, Durango Bizigarri batek **jasangarritasuna ardatz** izan behar du. Erronka kolosala da udalerrri batetik krisi ekosozialari aurre egitea. Eranginkorrena hurrengo norabidean neurriak hartzea da: herri barneko berdeguneak handitzea eta trafikoa murriztea, gure inguruko basoak eta natur-guneak zaintzea eta energia trantsizioan aurrera pausoak ematea.

Azkenik, Durango Bizigarriak osasuntsua izan beharko du. Horretarako, airea hobetzen jarraitu behar dugu, bizitza-eredu osasuntsuak sustatu, larrialdi klimatikoen aurrean erresilientzia garatu eta, nola ez, gure **osasun publikoaren alde borrokatu**.

Durango bizia

Durango Biziaz hitz egiten dugunean, pertsonen mugimenduaz hitz egiten dugu, kulturaren sorkuntzaz eta kulturaren parte hartzeaz, gure ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta kudeaketaz, eta komunitatearen heziketaz, formala zein ez-formala.

Kulturgintza, elkartegintza, auzogintza eta komertzio txikia dira gure herria bizitzaz betetzen dutenak. Errealitatea ikusteko eta sentitzeko modu berriak eskaintzen dizkigute eta kohesio soziala eta ehun komunitarioa indartzen dituzte. Premiazkoa da arlo hauek Udaletik hauspotzea.

Durango denona

Durango **Harrera Herria** izatea nahi dugu, gure artean bizitza-proiektua garatu nahi duten guztiek ongietorria senti dezaten.

Aniztasun funtzionalari arreta ematea funtsezkoa izango da, herritar guzti-guztiek espazioak eta baliabideak eskuragarri izan dezaten.

Gaztetxe bat nahi dugu Durangoko gazteentzat.

Herri Hezitzailea izan behar du Durangok, ume eta nerabeen heziketa eta ongizatea bermatzeko.

Denona den Durango batek ez du ikusten zahartze demografikoa arazo bezala, baizik eta soluzioaren parte: zaharrak parte aktibo izango dira herriaren eraldaketa prozesuan.

Gure hizkuntza hegemonikoa izango den espazioak sortuta, **euskararen arnagune** bilakatu nahi dugu Durango.

Horrenbestez, denon bizitzak erdigunean jartzen dituen eta zaintzen duen **Herri Feminista** izango da gurea.

Durango habitable

Reivindicar un Durango habitable es hoy más importante que nunca. Para ello, debemos desarrollar un urbanismo que coloque a las personas en el centro, situando la salud y la sostenibilidad como prioridades en nuestras políticas.

Por un lado, debemos proclamar alto y claro que **la vivienda es un derecho**. Para garantizarlo, Durango debe ampliar el parque de vivienda pública en alquiler.

Por otro lado, un Durango habitable debe tener la **sostenibilidad como eje central**. Afrontar la crisis ecosocial desde el ámbito municipal es un reto enorme. La manera más efectiva de hacerlo es tomar medidas en las siguientes áreas: ampliar las zonas verdes dentro del municipio y reducir el tráfico, cuidar los bosques y espacios naturales que nos rodean, y avanzar en la transición energética.

Por último, Durango debe ser saludable. Debemos seguir mejorando la calidad del aire, fomentar estilos de vida saludables, desarrollar resiliencia frente a emergencias climáticas y **luchar por nuestro sistema de salud público**.

Durango vibrante

Cuando hablamos de un Durango vibrante, hablamos del movimiento de las personas, de la creación y participación cultural, de la producción y gestión de nuestros bienes y servicios, y de la educación comunitaria, tanto formal como informal.

La actividad cultural, el asociacionismo, el trabajo en los barrios y el pequeño comercio son los cuatro pilares que llenan de vida a nuestro pueblo. Nos ofrecen nuevas formas de ver y sentir la realidad, fortaleciendo la cohesión social y el tejido comunitario.

No basta con aplaudir el trabajo que han hecho históricamente., es urgente fomentarlos desde el Ayuntamiento proporcionando recursos.

Durango de todas, todos y todes

Queremos que Durango sea un **pueblo de acogida**, donde todas las personas que deseen desarrollar su proyecto de vida entre nosotras se sientan bienvenidas. Será fundamental prestar atención a la **diversidad funcional** para que todas las ciudadanas y ciudadanos tengan acceso a espacios y recursos.

Queremos un **Gaztetxe** para la juventud de Durango.

Durango le debe dar continuidad al proyecto **Herri Hezitzailea**, garantizando la educación y el bienestar de niñas, niños y adolescentes.

Un Durango de todas y todos no considera que el envejecimiento demográfico sea un problema, sino parte de la solución: las personas mayores serán participantes activas en el proceso de transformación del pueblo.

Creando espacios donde nuestra lengua sea hegemónica, queremos convertir a Durango en un pulmón para el **euskera**.

Por todo ello, nuestro pueblo será **Feminista**, hay que poner las vidas de todas, todos y todes en el centro y cuidar de ellas.





Durangon badago gaitasuna etorkizuneko proiektu bat eraikitzeko, anbizioa eta lidergoa falta dira

NAGORE LOZANO ETA EKAITZ ANDUEZA

Ekaitz Andueza Arrona (Iurreta, 1997) eta Nagore Lozano Zarandona (Durango, 1974) Durangoko EH Bilduren mahai politikoko kideak dira. Besteak beste, azaroan San Agustinen aurkeztu zuten "Norabide bat" dinamika prestatzen ibili dira azken hilabeteotan.

Zein helbururekin jarri zenuten martxan "Norabide bat Durangori" dinamika?

Nagore Lozano: EH Bildun kontziente gara garai berri batean sartuak garela, eta etorkizunak erronka handiak jarri dizkigula parez pare: Etxebizitzaren problematika, zaintza krisia, larrialdi klimatikoa, digitalizazioa... erronka globalak dira, baina Durango mailan ere asko dugu egiteko gai hauetan. Zer etxebizitza politika behar dugu datorren hamarkadarako? Zer egin dezakegu Durangon aldaketa klimatikoari aurre egiteko? Erronka hauei guztiei heltzeko norabide argi bat behar da, eta norabide hori proposatzea da helburua.

Ekaitz Andueza: Onartu beharra dugu arlo batzuetan, mugikortasunean adibidez, aurrerapen handiak eman direla azken hamarkadetan Durangon: kotxea erdigunetik atera da pixkanaka eta bidegorriak egin dira. Baina beste arlo batzuetan, kulturen esaterako, aurrerapenak eman arren blokeo egoera batera bueltatu gara berriro. Etxebizitza edo ingurumena bezalako gaietan politika okerrak egin dira orain arte, eta horrela heldu gara honaino.



Queremos poner en marcha todo el potencial que tiene Durango para construir un pueblo habitable, vibrante y de todas.

La emergencia habitacional, la crisis de los cuidados, el cambio climático... son retos globales pero en Durango tenemos mucho que hacer.



Azken hamarkadetako errepassoa ere egin duzue dokumentuan, beraz.

N.L.: Agortutako eredu bati jarraitu dio urte askoan Durangoko Udalak, eta gaur egun ere agortutako eredu neoliberal horrek jarraitzen du indarrean. Batzuek pentsatu izan dute etxebizitzaren problematika merkatuak soluzionatuko zuela, edo larrialdi klimatikoak konponbide teknologikoa izango zuela. Ikusi da ezetz. Beste eredu ekonomiko eta politiko bat beharrezko dela.

Zertan oinarritzen da egin duzuen proposamena?

N.L.: EH Bildu lehenengo indarra da Udalean, 9 zinegotzirekin. Eta gobernuan ez gauden arren, norabide partekatatu bat proposatzeko inizatiba hartu dugu.

Hori esanda, hiru ardatzetan banatu dugu proposamena: Durango bizia, Durango bizigarria eta denon Durango.

E.A.: Laburbilduz, pertsonak erdigunean jarriko dituen herri eredu bateranzko norabidea proposatu dugu. Durangoko kolektibo ezberdinen (helduak, emakumeak, gazteak, migratuak...) zein auzoen paper garrantzitsua azpimarratuz. Gure herriko instituzio nagusiak, udaletxeak, jokatu beharreko paperaz hausnartu dugu. Gobernantza eredu berri bat proposatu dugu, eta komunitatea

sortzeko eta parte hartzea handitzeko tresnak mahaigaineratu ditugu: Demokrazia zuzena praktikan jartzea eta arloz arloko foroak sortzea, adibidez.

N.L.: Udalgintzan ere, batzuetan egunez eguneko zurrunbiloak harrapatzen gaitu: Osoko bilkurak, aurrekontuak, ekitaldiak... eta ahaztu egiten zaigu epe luzerako planteamenduak egitea. Horretaz jabetuta, burua altxatu eta 10-15 urte barru zelako Durango nahi dugun hausnarketa abiatu nahi izan dugu.

Norabide hori partekatua izan behar dela diozue. Zer esan nahi du horrek?

E.A.: Otsailetik aurrera Durangoko elkarte eta alderdiekin bilera erronda hasiko dugu. Izan ere, etorkizuneko Durango eraikitzeke ezinbestekoa izango da agente sozial eta politiko ezberdinen elkarlana. Durangok elkartegintza oso potentea dauka, hamarnaka eragile daude egunez egun Durango hobetzeko lanean. Durangon badago gaitasuna etorkizuneko proiektu bat eraikitzeke, udal erakundeen anbizioa eta lidergoa falta dira.

N.G.: Bestalde, arlo politikoan, argi geratu da alderdi batek ere ez duela gehiago osorik lortuko, eta adostasunak beharko direla. Planteatzen duguna da adostasun hauek etorkizunera begirako logikan jartzea, ez iraganera begira.

PNV y PSE pactan con el PP los presupuestos, rechazando a EH Bildu

EH BILDU OFRECIÓ SU VOTO PARA APROBAR LOS PRESUPUESTOS A CAMBIO DE AVANCES EN VIVIENDA, MEDIO AMBIENTE Y CUIDADOS, PERO EL PNV Y EL PSE HAN OPTADO POR PACTAR CON EL PP.

El PNV, PSE y PP han aprobado los presupuestos municipales para el año 2025, con el voto en contra de EH Bildu y Herriaren Eskubidea. A pesar de tratarse de los presupuestos más altos de la historia, consideramos que son unos presupuestos pobres, ya que no responden a los principales retos a los que se enfrenta Durango.

Por ejemplo, no se ha destinado ninguna partida para solucionar la problemática de la vivienda, no hay mención alguna a la crisis de los cuidados, y el presupuesto destinado al medio ambiente se recorta un 14%.

En noviembre, como le correspondía, la corporación municipal presentó el borrador de los presupuestos para 2025 y otorgó un plazo de dos semanas a la oposición para realizar aportaciones. Aunque nos parecieron unos presupuestos pobres

No hay ninguna partida para solucionar la problemática de la vivienda, no se mencionan los cuidados, y el presupuesto destinado a medio ambiente se recorta un 14%.

y sin ambición, desde EH Bildu presentamos nuestras propuestas con el objetivo de mejorarlos y de buscar un acuerdo con el gobierno.

Nuestra posición era clara, y así se lo hicimos saber al gobierno: estábamos dispuestos a ofrecer nuestros votos para avanzar en temas como la vivienda, el medio ambiente y los cuidados. Propusimos un acuerdo, que incluía un calendario de actuaciones y reuniones de seguimiento, con el objetivo de empezar a trabajar conjuntamente. A cambio, EH Bildu se abstendría en la votación, posibilitando así la

aprobación de las cuentas.

El gobierno, que está en minoría, necesitaba al menos una abstención para aprobar los presupuestos. Tenía dos opciones: buscar un acuerdo con EH Bildu para avanzar en políticas sociales o pactar con el único concejal del PP para mantener un camino que, a nuestro entender, no lleva a ninguna parte.

Además, según dijo la teniente alcalde Josune Escota en el debate, este pacto también deja atados los presupuestos con el PP para los dos años siguientes. Así, el PNV ha cerrado la puerta a negociar los próximos años, excluyendo a EH Bildu, principal partido municipal, de la dinámica política.

De este modo, el gobierno dirigido por la alcaldesa Mireia Elkoroiribe seguirá sin un rumbo claro y dependerá del concejal del PP.

Enmiendas de EH Bildu rechazadas por PNV y PSE

- Ayudas para rehabilitación de vivienda vacía con el objetivo de sacar al alquiler protegido: 130.000€
- Proyecto de co-housing para viviendas intergeneracionales: 20.000€
- Desarrollo de un plan de acción en base al diagnóstico de cuidados: 40.000€
- Medidas para la mitigación de los efectos del cambio climático: 160.000€
- Construcción de un segundo vestuario en le frontón Ezkurdi: 150.000€

Durangon %53 hazi da alokairu eskatzaileen kopurua urte eta erdian

Gaur egun Durangon etxebizitza bat eskuratzea oso prozesu zaila da. Ondo dakite hori gurasoen etxetik emantzipatu nahian dabilen gazteek, familia bat osatzeko etxe aproposa bilatzen dabilzanek edo, prezio altuak eta eskaintza baxua direla eta, etxebizitza bilatu ezinean dabilen jendeak. Etxebizitza eskubide subjektibo moduan jasota dagoen arren, praktikan ez da betetzen.

Izan ere, azken urte eta erdian %53 hazi da etxebiden izena emanda Durangon alokairu baten zain daudenen kopurua. Etxebidek ematen dituen datuen arabera, 2023ko ekainean, Durangon, 918 pertsona zeuden izena emanda alokairu eskatzaile moduan, eta gaur egun 1.412 eskatzaile daude.

Bestalde, Gazteen Euskal Behatokiaren arabera, batz besteko emantzipazio adina 30 urtekoa da

EAEn, eta 18-34 urte bitarteko gazteen %31 soilik dago emantzipatuta.

1.405 etxebizitza hutsik

Aldi berean, Durangon 1.405 etxebizitza daude hutsik, udalerrri osoko etxebizitzen %10,6.

Horrenbestez, argi dago soluzioa nondik etorriko den: etxebizitza hutsak mobilizatzea eta behar duenaren esku jartzea da lehentasuna.

Zentzu horretan, EH Bilduk hainbat proposamen egin ditu udal aurrekontuetan txertatzeko. Alde batetik, hutsik dauden etxebizitza zaharrak berritu eta alokairu babestuan jartzeko dirulaguntzak proposatu ditugu. Bestetik, udalaren jabetzako 16 etxebizitzak alokairu babestuan ateratzea lortu dugu.

 Zugazart

Gabonetako oparirik onena!! CARLOS GARCIA, PRESENTE!

Berdin emango dizu alkatetza,
zein aurrekontuak atera,
zein taxi bat eskatu...





Ikusi bideoa↑


*Amets egitea ariketa zaila da
Amesgaiztozko garaiotan
Baina badugu horretarako ausardia
Eta elkarri bidean eusteko adina indar*

*Durango gu baikara
Gu Euskal Herriko txataltxo handi hau
Gu inoiz ederra inoiz zatarra
Beti imperfektua eta beti bizia den herria*

*Eta desio bilakatu beharreko
Eginbehar bat badugu horixe da
Durango bizirik mantentzea
Bizitza ematea Durangori
Bizitza erdigunean jarrita
Bizitzak dakarren guztiarekin*

*Begirada zorrotzez
Keinu goxoz
Elkarlanean
Ametsak lurreratzeko
Gure kaleetan haz daitezzen*

📄 **Leire Vargas eta Matxalen Erzilla**





**Martin
Loizate
Sarrionandia**

—
Durangoko
zinegotzia

Plateruena: Gure kulturaren birika

Durangon kulturak birika bakarrarekin arnasten du. Sorginola eta Plateruenaren itxierarekin, jada asmatikoa zen gure kulturak espazio garrantzitsu bi galdu zituen. Arnas aparatua metaforari tiraka, batenbatek esan lezake pandemiaren ondorioz gaixotu zirela espazio hauek. Baina arazoa bestelakoa da: azken urteetan Durangon ez da kultura esparruan berrikuntzarik egin, eta aurreko hamarkadetako eredua kolokan dago.

2022an, prozesu herritar baten ondoren, Udalak proiektu publiko komunitario bat proposatu zuen Plateruenarentzat eta kultur mahaia sortu zen espazioa gidatzeko. Baina 2023ko hauteskundeetatik irtendako gobernuak bertan behera utzi zuen proiektua.

Orain dela aste batzuk Udalak Plateruenaren berririkiera iragarri zuen, "*helburu anbiziotsuak*" jarritz eta "*milioi bat euroko inbertsioa*" hitz emanez. Proiektu berriak bi aldaketa handi planteatzen ditu: Eraikinaren obra esanguratsua eta kudeaketa pribatua izatea.

Eraikinaren obrarako hitz emandako milloi euroak nondik aterako diren ez du esan Udalak. 2025eko aurrekontuetan, behintzat, ez da horren arrastorik ageri. Beraz pentsatu daiteke denboran luzatu egingo dela, eta beste urte betez, gutxienez, ez dela proiektua martxan jarriko.

Kudeaketa pribatuari dagokionez, EH Bildutik arriskutsua dela deritzogu. Horrela adierazi dute Kultur Mahaiko kideek ere, eta proiektuarekin ados ez, eta euren orain arteko ibilbidearekin amaitzea erabaki dute. Ezin da horrelako proiektu bat kultur eragileen elkarlanik gabe eraiki.


Argi baino ilun gehiago dituen iragarpen honen aurrean, lehentasunezkoa da Plateruena berriro zabaltzea, baina ezinbestean Udalak adostasunak bilatu beharko ditu eta euskararen eta herriko elkarteen paper protagonista bermatu.

*Udalak
adostasunak
bilatu
beharko
ditu eta
euskararen
eta herriko
elkarteen
paper
protagonista
bermatu*

Etorkizunak aldaketa handiak dakartza.

Orain arteko politikekin ezin zaie parean ditugun erronka sozial eta ekonomikoei soluziorik eman.

Eredu berri bat behar dugu eta denon artean pentsatzera goaz.



**Norabide bat
Durangori**

Un camino
para el futuro

ehbildu